



**EUSKARAREN
SAREA**

BIDASOATXINGUDI BORTZIRIAK HEGO LAPURDI



mintzodromoa

Aurten ere SAREUSKAK antolatuta

Mintzodromoa izanen da Euskararen Egunean

- *Hirugarren edizioa da aurtengoa eta Donibane Lohizunen egingen da.*
- *Euskal Kulturako aurpegi ezagunak izanen ditugu gonbidatuen artean.*
- *Donibane Lohizuneko Ravel aretoa euskaren arnas gune bilakatuko da.*

2014ko irailaren 19an Hego Lapurdiko Hiriguneak, Euskara Mankomunitateak eta Bidaso Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak SAREUSKA, euskararen sarea sortu zuten. SAREUSKA egitasmoaren xede nagusia Bidasoaz bi aldeetako eskualdeetan euskararen erabilera bultzatzea eta dinamizatzea da. Helburua lantzarren 2017. urtera bitarteko plangintza garatu dute eta MINTZODROMOA, bertan kokatzen den egitasmoetariko bat da.

Hortaz, aurten ere SAREUSKAK Mintzodromoa antolatu du Euskararen Nazioarteko Egunaren harira. Mintzodromoaren III. edizioa Donibane Lohizuneko Ravel aretoan egingen da abenduaren 1ean, goizeko 10:00 eta 12:30 bitartean.

Bertaratutakoak, tokian tokiko zein egunerokotasuneko gaien inguruan mintzatuko dira mahai baten bueltan lauko taldetxoetan eta giro xamur eta lagunartekoan. Hiru gai ezberdin proposatuko dira 15 minutuz mintzagai gisa eta hizketalditxo hauetariko bakoitza, lagun talde ezberdinarekin egingen dute. Ekimenaren dinamizazioaz aurten 25 urte betzen dituen Gure Irratiko esatari Panpi Mercapide arduratuko da. Eta euskal kulturako pertsonaia ezagunek parte hartuko dute ekimenean: Kalakan musika taldea, Peio Ospital kantaria eta Maialen Arzallus bertsolaria bertzeak bertze.

Hau horrela, haiekin solasean aritzeko eta haiek ezagutzeko aukera ere izanen da. Giroa eta parte-hartzea bultzatzeko, hamaiketako goxo baten aitzakia ere izanen da.





**EUSKARAREN
SAREA**

BIDASOA-TXINGUDI BORTZIRIAK HEGO LAPURDI



mintzodromoa

Ekimenaren helburua finean, euskaraz mintzatzeko aukera bat gehiago eskaintzea da, batez ere euskara ikasten ari direnei, praktikarako jauzia egin dezaten. Baina era berean euskaldunen arteko harreman sareak ehuntzea ere bilatzen da ekimenarekin. Izan ere, Mintzodromoan parte hartu ondotik, bertan egindako lagun berriekin, euskaraz erlazionatzeko joera biderkatu baitaiteke. Eta modu honetan euskaldun zahar eta berrien arteko igurtziak areagotzeko aukerak ere.

SAREUSKAK Mintzodromoan parte hartzeko deialdi berezia egin nahi die Bortziriak, Hego Lapurdi eta Irun-Hondarribiko euskaltegietako ikasle eta irakasleei eta baita ere mintzapraktika programetako parte-hartzaileei. Hala ere, ekimena guztiz irekia da eta edozein euskaltzaleri zuzenduta eta irekia dagoela azpimarratu nahi dute.

Izena emateko aukera aipatutako tokietako euskara zerbitzuetan eta baita euskaltegietan ere izanen da, Eta Hondarribia eta Irundik ekimenera joateko autobus zerbitzua egonen da.

Toki hauetan guztietan izena emateko aukera izanen da azaroak 28a bitartean eta ekimena doakoa da.

Donibane Lohizunen, 2016ko azaroaren 18an.

